

**LANKIDETZA HITZARMENA**
ACUERDO COLABORACION GOBIERNO VASCO / FUNDACIÓN AMANCIO
ORTEGA

2017-04-24Lehendakaritza 24-04-2017

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, Amancio Ortega Fundazioko arduradunok, jaun andreok, egunon. Eskerrik asko gurekin izateagatik.

Gure lehen hitzak Amancio Ortega Fundazioko arduradunei gure esker ona adierazteko dira.

Euskadin Osasun zerbitzu publikoaren aldeko apustua sendoa da eta, akordio honi esker, zerbitzu publikoa indartu egiten dugu. Elkarlanaren bidez pertsona guztiei eskaintzen diegun zerbitzua zabaldu eta hobetu egingo dugu.

Amancio Ortega Fundazioak zerbitzu publikoan eta elkarlanean ere sinesten du. Bere konfiantza erakutsi digu eta 14.700.000 euroko dohaintza egin dio Osakidetzari. Ekarpen horri esker, minbiziari aurre egiten jarraitzeko ekipamendu berriak izango ditugu, teknologia aurreratuenekin.

Amancio Ortega Fundazioak bere konpromiso publikoa erakusten du. Hezkuntzaren arloan edo gizarte babesaren arloan ez ezik, osasunean ere bere ekarpena egin nahi dio gure gizarteari.

Ezer baino lehen, beraz, eskerrik asko!

El Gobierno Vasco muestra su satisfacción por la firma de este acuerdo de colaboración con la Fundación Amancio Ortega. Supone una oportunidad para Euskadi, juntos reafirmamos nuestro compromiso con el servicio sanitario público y universal.

La Fundación ha decidido donar 14.700.000 euros al Servicio Vasco de Salud destinados a la adquisición de equipos de alta tecnología para el diagnóstico y tratamiento del cáncer.

Esta suma permitirá a Osakidetza adquirir cinco nuevos aceleradores lineales para radioterapia que se instalarán en los Hospitales Universitarios de Cruces, Basurto, Txagorritxu y Donostia; así como un mamógrafo para el Hospital de Basurto.

Hay que recordar que Osakidetza cuenta con diez aceleradores lineales para la atención oncológica por lo que, gracias a este acuerdo, podremos renovar la mitad del parque con aceleradores de última generación.

Minbiziari aurre egitea da gure “2020 Osasun Planaren” lehentasunetako bat. Egun, hiru heriotzatik ia bat minbiziari zor zaio gure artean. Horri aurre egiteko, lehen mailako talde profesionalak behar ditugu; baita teknologia aurreratuenak ere. Euskadin, minbizia duten pertsonen artean ia %60k erradioterapia jasotzen dute. Geroz eta diagnostiko eta tratamendu hobeei esker, geroz eta gaixo gehiago sendatzea lortzen da.

Horrela, gaixoen erdiak baino gehiagok bizirik diraute minbizia diagnostikatu eta bost urte igaro ondoren. Hain zuzen ere, %52k, gizonen artean; eta ia %60k, emakumeen artean. Onuragarri horretan hobetzen jarraitzea da 2020 Osasun Planaren helburuetako bat.

Gaur inbertsioak eta ekipamenduak aipatu ditugu. Baina pertsona nabarmendu nahi dut baita ere. Alde batetik, Osakidetza talde profesionala, bere konpromisoa baita zerbitzu publikoaren oinarria. Bestetik, batez ere, minbizia sufritzen duen pertsona bakoitza ekarri nahi dut gogora; bera, bere familia eta lagunak.

Beraien izenean, Eusko Jaurlaritzaren partetik, eskerrik asko Amancio Ortega Fundazioari.

Elkarlanean sinesten dugu, auzolanean, eta zuen ekarpena gure zerbitzu publikoa indartzeko eta hobetzeko ekarpen zuzena eskertzen dizuegu.

En la lucha contra el cáncer, no todo es tecnología. En Euskadi contamos con grandes profesionales, personas preparadas y comprometidas dispuestas a cuidar e investigar.

Por eso este acuerdo es, también, motivo de alegría para las y los profesionales de Osakidetza a quienes, una vez más, agradezco su trabajo y buen hacer en beneficio del paciente.

Para finalizar quiero mostrar el respaldo y compromiso del Gobierno Vasco con todas las personas que actualmente están luchando contra el cáncer. En su nombre, el de sus familias y amistades, volvemos a expresar nuestro agradecimiento a la Fundación Amancio Ortega.

Gracias por su inestimable aportación y el compromiso demostrado con el bien común, con el sistema sanitario público vasco.

Bihotz bihotzez, eskerrik asko!